



EH BILDUREN

KODE ETIKOA ETA PRAKTIKA ONAK

ehbildu



1) Irizpide orokorrak

EH Bilduko arduradun politiko eta kargudunok Euskal Herriko gizartearen zerbitzura gaude. Parte hartzean oinarritutako demokrazian, hau da, herritarrekiko harreman iraunkor eta zintzoan sinesten dugu. Gure konpromisoa gizarte zibila indartzea da, eta, horretarako, bide berriak irekiko ditugu gizarte-mugimenduek eta gizarte-eragileek modu erreal eta eraginkor batean parte har dezaten erabakiak diseinatu eta hartzeko garaian, betiere haien autonomia errespetatuta. Euskal Herri aske bat eraiki nahi dugu balio horietan oinarrituta.

Gure konpromiso eta ibilbide politikoan zein funts publikoen administrazioan, zorrotasuna eta efizientzia izango dira beti nagusi, eta balio horiek bateraezinak dira arduradun eta kargu politikodunen soldaten eta dieten gehiegizko gastuarekin.

EH Bilduko kargu publikodun gisa egiten dugun kudeaketak erabat gardena izan beharko du. Indarrean dagoen legerian adierazten denez, koalizioko ordezkari bakoitzak ondarearen aitorpen publikoa egin beharko du, bai kargua hartzean, bai kargua uztean.

Gure eguneroko jarduna zintzotasunean oinarrituta egongo da une oro, bai erantzukizun politikoetan, bai baliabide publikoen administrazioan, eta interes orokorra interes pertsonal edo partikularren gainetik jarriko dira beti. Jarduera politikoa ez da norberaren edo alderdiaren onuraren bilaketa, komunitateari egin beharreko zerbitzua baizik. Hortaz, kargu publikoak eta erakunde-karguak dituztenek ez dute inolako pribilegiarik eduki behar.

Giza duintasunarekiko errespetua pertsonen arteko harremanetarako oinarritzat hartuta, lehia politikoa gure aurkari politikoen duintasun pertsonalarekiko leialtasun ariketa bat da EH Bilduko arduradun politikoentzat eta kargu publikodunentzat. Horregatik, aurkarien izena zikintzeko portaera oro, haien bizitza pribatuaren inbasio oro eta giza duintasunaren aurkako ekintza oro baztertzen dugu.

Gure ustez, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio egoerak gaitzetzeko irtenbide puntual eta partzialak alde batera uztea. Hori dela-eta, emakumeen eskubideak erabat bete daitezela lan egingo dugu, egungo sistema gaitzitzen saiatuko gara, eta gure jarduera politikoa eta erakunde-jarduera ildo horretan eredugarri izateko konpromisoa hartuko dugu.

Desberdinen arteko elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa EH Bilduren DNAn bertan daude. Horixe izango da gure lan-metodoa (elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa), eta beti euskal gizartearen interes orokorraren alde.

2) Ustelkeriaren aurreko konpromisoak

Ustelkeria-jardunbideen aurrean hartu beharreko konpromisoak EH Bildu bereziki kezkatuta eta sentsibilizatuta dago hainbat hamarkadatan ustelkeria orokortzea ahalbidetu duen opakutasun-sistemarekin.

Gobernuen eta administrazio publikoen ustelkeriak eta asmo txarreko jardunbideek honako hauek eragiten dituzte:

- Baliabide publikoen desbideratzea eta zarrastelkeria.
- Efizientziarik eza erakunde publikoen funtzionamenduan.
- Gobernu-programen helburu eta xedeak ez betetzea.
- Herritarren arazoak ez konpontzea eta premiak ez betetzea.
- Azpiegitura publikoen murrizketa.
- Klientelismo politikoa.
- Justiziaren lana oztopatzea.
- Gobernuan eta erakundeetan konfiantza galtzea.



Horrez gain, azpimarratu beharra dago eskuinak interes handiarekin handitu eta bultzatu duela herritarren desafekzioa politikarekin, hau da, gure bizitzaren oinarrizko alderdiei buruzko erabakiekin.

Horretaz jabeturik, eta konfiantza jardunbide egokien eta dohain zibikoen bidez (hots, zintzotasun, leialtasun, eredugarritasun eta soiltasunaren bidez) lortzen dela jakinik, EH Bilduk hainbat konpromiso etiko eman ditu jakitera.

Bizitza politikoa onbideratu nahi dugu eta herritarrak erabakien ardatz bihurtu nahi ditugu. Horretarako, ondorengo printzipioei lotuta beteko dugu gure lan politikoa:

- **Justizia:** inor era arbitrarioan diskriminatuko ez duen, bakoitzari dagokiona emango dion eta une oro ekitatea defendatuko duen jarduna.
- **Errespetua:** pertsona eta erakunde guztiak adeitasunez eta begirunez, aurreiritzi eta diskriminaziorik gabe eta bidezkoa den duintasun guztiarekin tratatzea.
- **Zerbitzua:** politikariaren berezko erantzukizun espezifikoak jarraikiz herritarrekin prestasun-jarrera bat agertzeaz gain, gizartearen premien erabateko ikuspegi bat edukitzea.
- **Zintzotasuna:** gizalegez, zuzen eta zintzo jokatzeko, hitza eta jokabidea une bakoitzean zuzentzat hartzen dena egokituz, egiten den lanagatik abantailarik lortu gabe eta karguari datxekion pribilegioak soil-soilik karguaren funtzioak betetzeko erabiliz.
- **Inpartzialtasuna:** norberaren eta koalizioaren ideiei atxikitzeak ez du esan nahi politikariak objektibotasunez eta bere irizpide etikoak jarraikiz jokatu behar ez duenik.
- **Profesionaltasuna:** jarduera arduraz, gaitasunez, eraginkortasunez eta bizkortasunez egitea, prestakuntza intelektuala, gaitasunen garapena eta horien eguneratzea kontuan hartuta.
- **Gardentasuna:** herritarrei politikariaren, koalizioaren edota politikariak bere jardura egiten duen erakunde legegile, betearazle edo administratiboaren esku dauden informazioak oztoporik eta diskriminaziorik gabe eskuratzeko aukera erraztea (informazio horiek herritarrentzat haien eskubide eta askatasunak babesteko interesa dutenean), politikariaren jardura propioari buruzko informazioa barnean hartuta.

Printzipio horiek orientagarriak dira, eta jardunbide egokiak sustatzea, bizitza demokratikoa sendotzea eta konpromiso eta bokazio politikoari prestigioa ematea dute helburu. Horrekin batera, konpromiso publikoa hartu dugu gure gain honako alderdi hauen inguruan:

- 1) Kargua betetzean, koalizioak herritar guztiei aurkeztutako hauteskunde-programa gauzatzeko lan egitea.
- 2) Enpresa eta aberats handien interes komertzialak, ekonomikoak eta finantzarioak herritarren interesen gainetik ez jartzea.
- 3) Ez dagokigun meriturik ez hartzea. Eta, bereziki, ez ditugu guri bururatutako ideia gisa aurkeztuko kolektibo sozial eta sindikalek edota herritarrek proposatzen dizkiguten ideiak.
- 4) Bateriaezina izango da EH Bilduko edozein kargudun erakunde edo zuzendaritza-organo batekoa izatea, baldin eta erakunde edo organo horrek kargudunak bazkide gisa parte hartzen duen pertsona juridikoekin, noizean behin bada ere, merkataritza-harremanen bat kontratatzen bada.



5) Ustelkeriari, irabazi-asmoarekin egindako prebarikazioari, influentzia-trafikoari, baliabide publiko edo pribatu bidezko bidegabeko aberasteari, ondare publikoen bidegabeko eragiltze eta bidegabeko jabetzeari, eroskeriari, arrazakeriari, xenofobiari, homofobiari edo genero-indarkeriari lotutako delituengatik ikertuta, auzipetuta edo zigortuta dauden EH Bilduko ordezkariak beren kargu publikoak utziko dituzte berehala. Gainera, militantziatik kanpo geratuko dira kautelaz, egozpena eta auzipetzea desagertu arte edo absoluzio-epaia eman arte.

6) Gardentasuna areagotzea, eta, horretarako, jardunbide hobeak hartzea (hala-nola aurrekontua lantzeko prozesuan aldaketak egitea eta herritarrek informazio zehatza izan dezaten eta zuzenean parte har dezaten bultzatzea, demokratizaziorako eta zuzeneko kontrolerako mekanismo gisa).

7) EH Bilduko kargu publikodunek ez dute parte hartuko ezein gaietan baldin eta interes ekonomikoren bat edo beste abantaila pertsonal edo familiarren bat izan badezakete, betiere gure funtzio publikoa betetzearekin lotutako gaia denean. Halaber, ez dute beren edo beste batzuen mesedetan baliatuko karguan daudelako eskuratu duten informazioa, ez zuzenean, ezta zeharka ere, ez karguan dauden bitartean, ezta kargua utzi ondoren ere, eta ez dute onartuko lan politikoaren edo erakunde-lanaren neutraltasuna baldintzatu dezakeen oparirik, dohaintzarik, gonbidapenik edo beste edozein prebendarik.

8) EH Bilduko kargu publikodunek ustelkeriagatik, influentzia-trafikoagatik edo, oro har, etikoki gaitzesgarria den edozein portaeragatik erantzukizunak argitzeko ikerketa ororen aldeko botoa emango dute, baita kargudunak berak edo koalizioa osatzen duten alderdiak eraginpean hartzen dituzten ikerketen alde ere.

3) Praktika on eta hautetsiak, liberatuak eta izendapen libreko karguen harremanak EHBildurekiko.

a) Liberatuak

1) EH Bilduk lan baldintza duinak eskaini behar ditu, jendartearentzat eskatzen ditugun gutxieneko baldintzak bermatuz eta berdintasunaren printzipioari bidea eginez. Baina ez gara lantegi bateko langileak. Militante eta arduradun politikoak gara, EH Bilduren egitura, oinarri soziala eta, oro har, jendartearekiko konpromisoa hartu dugunok. Horrek esan nahi du, besteak beste, gure harreman kontraktualaz harago, harreman eta konpromiso politiko bati lotuak gaudela.

2) EH Bilduren lan baldintzak onartzen ditugu (*Gehigarri ekonomikoan zehazten dira). Horretan sartzen dira soldatak, ordutegiak, ardurak... Kontratuan zehaztuko dira baldintza horiek.

3) Liberatuak garenok arestian aipatutako Kodigo Etikoa gure egiten dugu. Halaber, EH Bilduren Estatutuak onartu eta errespetatuko ditugu.

4) Jarrera sexistarik ez eduki eta ez onartzeko konpromisoa hartzen dugu. Era berean, EH Bilduko langileen arteko harreman gutziak erabateko errespetuan oinarritu behar dira.

5) Lana bukatzen denean alde aurretik adostutako baldintzetan egitea onartzen dugu (*Arautegi ekonomikoan agertzen direnak). Lana noiz bukatzen den EH Bilduren beharren eta ahalmenen arabera zehaztuko du dagokien egiturak. Liberatua ados ez badago, EH Bilduren barruko organoetara jotzeko aukera izango du (Berme Batzordea besteak beste), baina ez du bestelako desmartzarik egingo.



b) Hautetsiak eta izendapen libreko karguak

- 1) Hautetsiok Kodigo Etikoa eta praktika onen inguruan ebatzitakoa eta dokumentu honetan agertutakoa onartzen dugu.
- 2) Hautetsi kargua, herritarrek EH Bilduren programa eta proiektu politikoari emandako babesaren emaitza da. Hortaz, hautetsi karguak EH Bilduren izenean eskuratutakoak dira, nahiz eta hautagaitzak erabakitzeko barne prozeduran bozketa nominalak izan daitezkeen. Transfugismoa ez da onartzen eta konprometitzen gara akta EH Bilduren eskuetan uztera bi aldetako batek hala erabakiz gero. Desadostasuna balego barne organoetara jotzeko aukera izango da (Berme Batzordea besteak beste)
- 3) Hautetsiak, karguan dirauen bitartean, EH Bilduren programa, ildoak eta irudia ordezkatzeko du. Aurretik beste jende askok egindako lan politikoaren lekukoa jasoko du eta helburua, lekukoa uzten duen unean gure proiektua garatuagoa eta hedatuagoa izatea da.
- 4) Izendapen libreko karguak, hautetsiak eta EH Bilduko egituraren artean adostuko dira. Postu horietan sartzeko direnak hautetsi eta liberatuen Kodigo Etiko berdina onartuko dute.
- 5) Hautetsiek zein izendapen libreko kargu horietan sartzeko direnak jasoko duten soldatak, ordainsari ekonomikoak eta EH Bilduri egingo dioten ekarpena, taula ekonomikoan onartutakoaren arabera izango dira (*Gehigarria 1: Arautegi ekonomikoa). Hori horrela izatea onartzen dugu izendapen libreko kargua hartuko dugunok.
- 6) EH Bilduko hautetsiak EH Bilduren barne-jardunean parte hartzeko eskubidea izango du. Hartara, EH Bilduren baitan eta dagokion eremuan ematen diren eztabaidetan parte hartu, iritzia eman eta erabakitzeko eskubide eta ahalmena izango du.
- 7) EH Bilduko hautetsiak, arduraz horretaz gain EH Bilduko barne arduretarako hautatua eta hautatzaile izateko eskubidea izango du.
- 8) Hautetsi jardunean aritzeko beharrezkoa duen prestakuntza eta formakuntza jasotzeko eskubidea izango du.
- 9) Oro har, Hautetsiak EH Bilduko kide guztiek dituzten eskubide berdinak izango ditu.
- 10) Hautetsiak, EH Bilduren oinarri ideologikoekin bat egin eta EHBilduko organoetan harturiko erabakiak eta irizpideak errespetatu eta gauzatu ditu. Desadostasunak, EHBilduren barne mailan adieraziko dira horretarako egokitutako prozeduraren bidez. Barne mailako desadostasunik ez da publikoki adieraziko. Salbuespen gisa, barne desadostasunak publikoki adierazi aurretik, dagokion organoa jakinaren gainean jarri eta hor eztabaidatuko da.
- 11) Hautetsiak EH Bilduren herri batzarretan parte hartuko du, bai eta dagozkion gainerako organoetan ere.
- 12) Hautetsiek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna izango dute. Salbuespen gisa eta bere lurralde eremuan euskararen ezagutza maila baxua delako euskara jakin gabe hautetsi sartzeko denak, euskararen ezagutzan sakontzeko konpromisoa hartuko du.

Hautagaiaren izena:

NAN Zenbakia:

Sinatzeko data: